

Hitzzen lihoa



Azaroak 10-16 Oiartzun

intimitatea

Azaroak 10, astelehena

19:00etan, INTIMITATE PLASTIKOA

pintura-erakusketaren inaugurazioa

Landetxeko sarreran, tabernaren ondoan.

Intimitatea gai hartuta, margolanak sortzeko proposamena egin diegu Helduen Tailerretako Margolaritza taldekoei eta Idoia Beratarbideren 100tzeko helduen sormen taldeari. Modu librean, banaka edo taldean eta teknika anitzetan, intimitatea jorratu eta begiratzeko askotariko emaitzak ikusiko ditugu. Egindako lanak azaroaren 10etik 23ra bitartean egongo dira ikusgai.



Azaroak 12, asteazkena

**19:00etan, Miren Amurizaren MANIFESTUA
eta Leire Vargasen BIZI SINTETIKOAK
poesia musikatu emanaldia.**

Landetxe Kultur Aretoan.

Miren Amurizari eskatu diogu aurtengo Hitzen Lihoaren manifestua idazteko. Gaia, intimitatea. Formatua, librea. Eraitza, Landetxeko oholtzan. Miren Amurizaren doinu eta neurri. Behin.

Leire Vargas poetak eta **Jaime Nieto** musikariak elkarrizketan jarriko dituzte poesia eta musika elektronikoa. 45 minutuan zehar, sintetizagailuek, gitarrek eta teklatu-soinuek eraikiko dute giroa, eta

emozio paleta zabaleko puntu batetik bestera eramango gaituzte. Haren ginetik agertuko da poesia, idazlearen ahotsean, emozioei hitzak jarritz.



Gonbidapenak sarrerak.oartzun.eus webgunean.

Azaroak 13, osteguna

Maitane Nerekan filosofoaren eskutik, intimitateaz

17:00etatik 18:30era, Haur Filosofia

saioa NON EZKUTATU DA NIRE

INTIMITATEA? LH 4-5-6ko ikasleekin

Abaraxka Ludotekan.

**19:00etan, Pote filosofikoa INTIMITATEA
PRIBATUA AL DA BETI?**

Kastro Berri tabernan.

Maitane Nerekanen eskutik, intimitateaz hitz egiteko aukera izango dugu, beharbada pentsamenduarekin eta hausnarketarekin lotzen ez dugun leku batean: tabernan. Pote filosofikoek horixe baitute ezaugarri: trago bat eskutan hartuta, tabernako elkarrizketa elkarrizketa filosofiko izan dadin ahalegintzen gara. Maitane Nerekanek irekiko digu bidea hitzaldi labur batekin, eta, ondoren, bertaratutakoen artean sortuko dugu elkarrizketa. Aurretik, ariketa bera egingo dute haurrek, Abaraxka Ludotekan.



Azaroak 14, ostirala

**19:00etan, ANALISI INTIMO BAT mahai-
ingurua** Ula Iruretagoiena (arkitektoa), Miren
Guilló (antropologoa) eta Maider Galardirekin
(kazetari eta ikerlaria).

Landetxe Kultur Aretoan.

Zeharkatzen ditugun kaleen eta zeharkatzen gaituzten etheen nolakotasunak intimitate eta harreman batzuk edo beste batzuk sortzen ditu, gure harreman sareak intimitate klase batzuk posible egiten ditu eta beste batzuk kamustu. Intimitatea eremu pertsonal soilera mugatuz politikoki hustutzen da eta ikusezin geratzen dira gai eta gorputz jakin batzuk, hizkuntzaren erabilera etxeko esparru intimora mugatzeak hizkuntzaren zabalpenean eta prestijioan eragiten du,...Baina Intimitatea ere politikoa da, pertsonala politikoa delako. Hiru esparrutatik jarriko gara intimitateari leiho eta ate berriak zabaltzeko asmoz.



Gonbidapenak sarrerak oiartzun.eus
webgunean.

Azaroak 15, larunbata
11:00etan, BARNE-PAISAIAK lantegia,
helduentzat.
Arizmendienean.

Dejabu konpainiaren eskutik tailer honek intimitatea arakatuko du, norbere begiradatik abiatuta besteekin topo egiteko aukera gisa. Barne-paisaien esplorazioaren eta irudimenaren bidez, parte-hartzaileek beren mundu txikia irudikatuko dute, eta hari horietatik paisaia kolektibo bat josiko da. Barneko ahots bat entzun, eta haren bidez besteak deskubritu.



Izena eman behar da hitzenlihoa@gmail.com helbidera idatzita, azaroaren 13a baino lehen.

Azaroak 15, larunbata
22:00etan, IZAKI GARDENAK
taldearen kontzertua
Landetxe Kultur Aretoan.

2012an sortu zuen Jon Basagurenek Izaki Gardenak. Urte hartan bertan argitaratu zuten Itsasargiak, bost kantuz osaturiko EPa. Ordutik hiru disko luze eta hainbat single plazaratu dituzte, rockaren eta poparen arteko soinua lantzen dituzte eta zer esaten den eta nola esaten den zaindu. Lau urteko geldialdi baten ondoren, 2024an berriz martxan jarri da taldea, Orube izeneko diskoa argitaratu dute eta 2025aren hasieratik kontzertu bira batean ari dira.



Sarrerak sarrerak.oiartzun.eus webgunean 12€ edo egunean bertan leihatilan 15€.

Azaroak 16, igandea

10:00etatik 13:30era

II. LIBURU AZOKA TTIKIA


Kontzejupean.

Oiartzungo idazleen aurtengo lanak eskuratu ahal izango dituzte bertaratzen direnek eta Oier Guillanen hainbat lan ere bertan egongo dira eskuragai.

10:30etik aurrera AZTITZA liburuaren Irakurketa jarraitua.

Kontzejupean.

Aurten kaleratu du Oier Guillanek Aztitza liburua. Herritarron artean irakurriko dugu testua, ahoz gora, beste plaza bat hartu dezaten orain arte liburuan egon diren hitzek. Nahi duen orok parte hartu dezake, aurretik izena emanda. Literaturaz gain, kafea eta bizkotxoak izango dira.



Irakurketa jarraiturako izena eman behar behar da hitzenlihoa@gmail.com helbidera idatzita, urriaren 31 baino lehen.

Azaroak 16, igandea
14:00etan, **BERTSO-BAZKARI
LITERARIOA**
Girizia elkartearen.

BABARRUN JATEA

Oier Guillanen Aztitza liburuan oinarrituta, idazleak berak egingo du gai-jairtzaile lana: bertsoan, berriz, Mainer Arregi, Unai Iturriaga eta Alaia Martin ariko dira bertsoaren eta literaturaren topagune honetan.



Sarrereren erreserba hitzenlihoa@gmail.com helbidera idatzita:
orokorra 20€, langabetua 15€, bertso-saioa bakarrik 5€.

www.hitzenlihoa.eus

IKUSI
SPOTA
HEMEN



ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



OIARTZUNGO
UDALA



ARGIA

berria

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Orona 



DOINUELE
Euskarazko plazaen sarea

